 orereta ikastola AURRERA!

DBH1 GIZarte: **"Iraganaren puzzlea"**
Ezagutzak

| **Helburu didaktikoak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| 1. Gure arbasoen gizartea berreraikitzeko historiak dituen berariazko tresnei eta adierazpen-moduei buruzko ezagutzak zuzen erabili, gaiari lotutako zereginei erantzuteko. | *1.1. Informazio-iturriak motaren eta jatorriaren arabera sailkatu ditu.*<br>*1.2. Informazio-iturriak eta horiek ematen duten informazioa erlazionatu ditu.*<br>*1.3. Iturriak ematen duen informazioari buruzko galderak zuzen erantzun ditu.*<br>*1.4. Aroei eta gertaerei buruz denbora-lerroak ematen duen informazioari buruzko galderak zuzen erantzun ditut* |
| 2. Indagazio historikoaren urratsak aplikatuz emandako arkeologia-aztarnei buruzko hipotesiak formulatu, datuetan edota ebidentzietan oinarrituz. | *2.1. Emandako informazio-iturriak aztertuz hipotesiak direnak hautatu ditu.*<br>*2.2. Emandako informazio-iturria aztertuz, horri buruzko hipotesia egin du.* |
| 3. Historiaurreko eta Antzinaroko nahiz gaur egungo bizimoduen ezaugarrien arteko erlazioak adierazi. | *3.1. Historiaurreko garaietako kontzeptuak zuzen sailkatu ditu.*<br>*3.2. Antzinaroko gizartearen deskribapenetan, erantzun egokiak hautatu ditu.* |
| 4. Hainbat euskarritan (mapa historikoak, denbora-lerroak, hainbat testu eta bideoak) eskainitako informazio-iturriak erabiliz, elkarlanean, Historiaurreko eta Antzinaroko bizimoduari buruzko informazioa eskuratu eta eduki-fitxetan, mapetan nahiz denbora-lerro digitaletan erregistratu. | *4.1. Emandako informazioa erabiliz, ikasleak eskatzen zaizkion datuak bilatu eta jaso ditu:*<br>*- Eskatutako atalei dagokien informazioa Infogunean aurkitu eta hautatu du.*<br>*- Atal bakoitzerako ideia nagusia erregistratu du.*<br>*4.2. Denbora-lerro digital bat egin eta partekatu du, eskainitako informazioa erabiliz:*<br>*- Emandako gertaerak ongi antolatu ditu.*<br>*- Elementuak egoki kokatu ditu.*<br>*- Ikonoak eta izenak dagozkien lekuetan zuzen kokatu ditu.*<br>*- Txantiloiaren esteka ongi kopiatu du eta denbora-lerroa sortu du.*<br>*- Sortutako denbora-lerroa hartzaileari helarazi dio.* |
| 5. Hainbat euskarritan emandako informazioan oinarrituta, hainbat lurralde eta garaitako bizimoduari buruzko ahozko diskurtsoa sortu | *5.1. Emandako irizpideen arabera eskatutako ahozko diskurtsoa egoki egin du.* |